

Heteronomiaren iturriak

Heteronomia mundu fisikoan kokatzen dugu. Fisikak lege naturalak, hau da, fenomenoak aztertzen ditu. Aiherrak dira mugitzen gaituzten fenomeno naturalak, hauek ditugu motibazio iturri; eta hauek ezin dira aukeratu, denok ditugu, horretara gaude determinatuak eta, beraz, horregatik jokatzeko modu heteronomoan. Fenomenoen kausa-efektu segida batean kokatzen gara, non arrotza den objektu batek determinatzen duen gure borondatea eta, beraz, heteronomoki jokatzeko modu. Aiherraren bidez, hau da, enpirikoa den naturaren bidez, determinaturik gaudenean, ez dago moralik ez borondate onik, izan ere, moralitasunaren printzipioetako bat autonomia da.

Autonomiaren iturriak

Autonomia moralitasunaren izate baldintza da, izan ere, ez badago esparru bat lege natural eta fenomenikoetatik at, ez dago moralitateatik. Borondate aske edo transzendentala da autonomiaren iturri, borondate formal, metafisikoa eta a prioriakoa. Bertan baldintzatu gabeko gizakia kokatzen da, zeinak legea ematen dion bere buruari. Horrela, autonomiaren (askatasunaren) bidez ekintza ez da determinismoaren pean kokatzen. Autonomiarako gaitasuna arrazoimen praktiko hutsaren fakultatea da, eta autonomoki jokatzeko modu gure burua determinatzen dugu, gure gaitasunaren printzipioa edo legea gure buruari. Arrazoimen praktiko hutsaren kausalitate forma bat-batekoa edo autonomia da, horrenbestez, ez du aurreko kausarik.